

ERABAKIA, 2021eko irailaren 21ekoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena aipatzen den lanpostua izendapen askearen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA onartzeko dena.

## F 2

### Kargudunaren idazkaria

### ERREKTOREGOA

Deialdia 2021eko uztailaren 7ko UPV/EHuren gerentearen Erabakiaren bidez egin zen eta 2021eko uztailaren 22ko EHAA n argitaratu zen.

### ARAU APLIKAGARRIAK

•190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.

•ERABAKIA, 1996ko urriaren 23koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen LanBaldintzak Arautzeko Hitzarmena argitaratzeko dena. (azaroaren 12ko EHAA).

Beraz, 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko Erabakiaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz, (2021eko otsailaren 12ko EHAA), Gerentzia honek

### ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda argitaratzea, UPV/EHUko web-orrian. Hautaketa eta Hornikuntza. Barne-deialdiak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Gerentzia honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan. Horretarako hilabete biko epea izango da, erabaki hau UPV/EHUaren web orrian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita (Deialdiaren 1. oinarrian).

Leioan, 2021eko irailaren 21ean

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko Gerentea

Stua.: Miren Lorea Bilbao Arteche



# I. ERANSKINA

<b>ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA</b>			
IZENDAPEN ASKEA		2021eko uztailaren 7ko DEIALDIA	EHAA: 2021/07/22
1869	F 2	Kargudunaren idazkaria	Hor. 2 HE 2.98/12
<b>ERREKTOREGOA</b>			

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

\* BAZTERTZEKO ARRAZIOIAK: 1: Epez kanpo aurkeztutako eskabidea; 2: Deialdian onartzen diren talde edo eskalen batean karreradun funtzionarioa ez izatea; 3: Lanpostua betetzeko eskatutako titulazioa ez edukitzea; 4: Eskatutako hizkuntz eskakizuna ez edukitzea; 5: UPV/EHUko funtzionarioa ez izatea; 6: Deialdia argitaratu aurreko urtebetean, prozedura honen bidez, zerbitzu betekizunetarako izendapena izatea; 7. Eskatzen den hizkuntza jakitearen ziurtagiria ez aurkeztea. 8. Erregistratu gabeko eskabidea. 9. Deialdiari uko egitea. 10 Behin beineko funtzionarioa besta lanpoltsatik kontrattua; 12 Karredun funtzionarioa ez izatea.